

## AGINTARIAK ETA LANGILEAK

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 5181

*2377/2025 EBAZPENA, azaroaren 13koa, Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Juan Antonio Arévalo Serna jauna aldi baterako eta lau urte luzagarriz izendatzen baita Digestio-aparatuko Atal Sanitarioko buru (Ospitale-barneko Kontsulten eta Endoskopiaren Eremua), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuan.*

Barrualde-Galdakaoko ESIko zuzendari-gerentearen ekainaren 9ko 1123/2025 Ebazpenaren bidez, deialdi bat argitaratu zen Barrualde-Galdakaoko ESIko Digestio-aparatuko Atal Sanitarioko buruaren (Ospitale-barneko Kontsulten eta Endoskopiaren Eremua) lanpostua hornitzeko lehia-keta-sistemaren bidez (2025eko irailaren 4ko EHAA, 167. zk. eta 2025eko irailaren 11ko BOE, 219. zk.).

Epaimahai kalifikatzaileak baloratu egin du aurkeztutako eskabidea, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Juan Antonio Arévalo Serna jaunak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da pertsona hori Digestio-aparatuko Atal Sanitarioko buru (Ospitale-barneko Kontsulten eta Endoskopiaren Eremua) izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakaoko ESIan.

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru gutarrenean arau komunean, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan xedatutakoarekin,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Juan Antonio Arévalo Serna jauna Digestio-aparatuko Atal Sanitarioko buru (Ospitale-barneko Kontsulten eta Endoskopiaren Eremua) izendatzea, aldi baterako, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakaoko ESIan.

Bigarrena.– Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikulua hiru gutarrenean arau komunean ezarritakoaren arabera, eta egun honetatik aurrera izango ditu ondorioak: 2025eko azaroaren 17a.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du lanpostua, baldin eta jazotzen ez bada luzapena egin ahal izateko baldintzaren bat eta, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen aipatutako 28. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik izendatua, aldez aurretik kontrako espedientea baldin badago eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua 6. apartatua aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Interesdunari eta Barrualde-Galdakaoko ESIari ebazpen honen berri ematea.

2025eko abenduaren 4a, osteguna

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Usansolo, 2025eko azaroaren 13a.

Barrualde-Galdakaoko ESIko zuzendari-gerentea,  
GEMMA FERNÁNDEZ PEÑALBA.